

SIEMENS VDO

Takografo Digitalaren Gida Praktikoa



Gida horretan takografo digital bat erabiltzeko behar dituzun oinarrizko kontzeptuak azalduko dizkizugu:

- Takografo digitalak nola funtzionatzen duen
- Menuz menu nola ibili edo nola nabigatu
- Piktogramak eta inprimatutako agiriak nola interpretatu
- Txartelaren memorian eta takografoaren jasotako informazioa nola deskargatu eta gorde
- Nola sartu eskuz informazio gehigarria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE
TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

TAKOGRAFO DIGITALAREN OINARRIZKO FUNTZIONAMENDUA

Gidari bakar bat

- **Gidatzen hasi aurretik**, sartu txartela 1. artekan. Txartela sartutakoan, eskuz sartu beharko dituzu, txartela azkena atera zenuenetik berriro sartu arte egin dituzunak, gida honetan informazio gehigarria sartzeko diagramari jarraituz. Hau da, txartela takografitik kanpo izan duzun tarte horretan sortu den hutsune hori eskuz sartu beharko duzu.
- **Gidatzen duzun bitartean**, gidatzearekin lotutako datuak automatikoki gordeko dira bai takografoaren memorian, bai txartelean. Ez daukazu takografoa ukitu beharrik.
- **Eginkizuna aldatuz gero**, hau da, gidatzeari utzi eta beste zerbait egitera joanez gero (lotara, beste lan batzuk egitera edo besterik gabe lanerako prest izatera), eginkizun-hautagailua erabiliz adierazi beharko duzu zertan jardun behar duzun.
- **Lanaldia hasi edo bukatzeakoan** beti eskuz sartu beharko duzu non hasten edo bukatzen den lanaldia. Txartela atera baduzu, takografoak berak eskatuko dizu atzera sartzeko, eta menu nagusitik abiaturiko da.



Ibilgailua gelditzuz gero, takografoak automatikoki jotzen du "beste lan batzuk" aukerara. Aukeratu, egin behar duzunarekin bat datorrena. Gogoan izan eginkizun-hautagailua erabiltzen ez baduzu edo-eta gaizki erabiltzen baduzu, zigorra handia izan daitekeela.

Lanaldian zehar txartela ateratzen baduzu (bazkaltzeko, ibilgailua aldatzeko, eta abar), ez daukazu tokia adierazi beharrik. Takografoak txartela non atera duzun galdetzen dizunean, "escape" tekla segundo batzuetan sakatuta eduki, eta txartela automatikoki aterako da.


Bi gidari

- **Gidatzen hasi aurretik**, gidariak 1. artekan sartu beharko du txartela, eta kopilotuak 2.ean.
- **Gidatzen duzun bitartean**, eginkizun-hautagailuak, gidaria gidatzen doala adieraziko du eta kopilotua prest dagoela.
- **Gidari-lanean aldatzeakoan**, txartelak ere aldatu egin beharko dira. Ordura arte kopilotu gisa jardun duenaren txartela 2. artekatik atera eta 1.an sartuko da, eta alderantzikiz.

MENUAN ZEHAR NABIGATZEKO ESKEMA

Ondorengo irudian Siemens takografoak eskaintzen dizkizun funtzio guztiak eta horietara heltzeko biderik errazenak ikus daitezke. Nahi duzun funtziora joateko, aski da irudi horretan adierazten zaizkizun teklak sakatzea.

Gogoan izan hasieran beti **pantaila nagusia** azalduko zaizula eta hortik aurrera hasi beharko duzula ibilbidea nahi duzun pantailara iristeko.




Adibidez: OUT funtziora iristeko, tekla hauek sakatu beharko dituzu:

1.- **OK** tekla behin; 2.- **▼** tekla bost aldiz; 3.- **OK** tekla behin.

INFORMAZIOA ESKUZ SARTZEKO DIAGRAMA

Txartela takografoan sartzen duzun bakoitzean, takografotik kanpo edukitako tarte horretan zer egin duzun justifikatu beharko duzu. Ondoren duzun arbola honetan ikus dezakezu zer informazio sar dezakezun eskuz.



ZER ETA NOLA INPRIMATU

Takografoak gutxienez 6 agiri mota inprimatzeko aukera ematen dizu:

- 24h  Takografoan erregistratu diren azken 24 ordutako datuak, gidariarenak eta kopilotuarenak.
- 24h  Txartelean erregistratu diren azken 24 ordutako datuak, gidariarenak eta kopilotuarenak.
- !  Txartelean erregistratutako gorabehera eta akatsak.
- !  Takografoan erregistratutako gorabehera eta akatsak.
- T  Ibilgailuaren eta kontrol-aparailuaren datu teknikoak.
- >>  Takografoan erregistratutako abiadura-muga gainditzeak.



Takografo digitala duen ibilgailu bat utzi eta analogikoa duen beste bat hartu behar baduzu, 24h  agiria inprimatu beharko duzu. Errepidean kontrolen batean geratuz gero, ikuskapena egiten den egun horretako erregistro-orriak, aste horretakoak eta aurreko 15 egunetakoak beharko dituzu.

Txartela hondatu edo galduz gero, jarduera justifikatzeko 24h  agiria inprimatu beharko duzu, bidairen hasieran eta amaieran, eta izen-abizenak eta txartelaren edo gidabaimenaren zenbakia jarri beharko dituzu, eta ondoren sinatu.

Kontsultatu 561/2006/EB Erregelamenduaren 26. artikulua.


PIKTOGRAMEN ESANAHIA

Piktogramak, pantailan eta takografoak inprimatzzen dituen agirietan azaltzen diren irudi edo sinboloak dira. Piktograma bakoitzak bakarka esanahi jakin bat du, baina beste batzuen ondoan agertzen bada, esanahi hori aldatu egin daiteke.

Personak	Ekintzak	Funtzionatzeko moduak
 Enpresa		Enpresa-modua
 Kontrolatzalea	Kontrola	Kontrol-modua
 Gidaria	Gidatu	Laneko modua
 Tайлера/Saiakuntza-zentroa	Ikuskatu/kalibratu	Kalibrazio-modua
 Fabrikatzalea		
Ekintzak	Iraupena	
 Eginkizunak		
 Libre	Libre daraman denbora	
 Gidatu	Gidatzten daraman denbora	
 Atsedena	Atseden hartzen daraman denbora	
 Lana	Lanean daraman denbora	
 Etena	Pilatutako atseden-denbora	
 Zehaztugabea		
Gertaerak	Aparailua	Funtzioak
 Txartel okerra	 Gidariaren arteka	
 Arazo bat diago txartelarekin	 Bigarren gidariaren arteka	
 Arazo bat diago denborarekin	 Txartela	
 Txartel egokirik gabe gidatzenean	 Erlojua	
 Txartela ibilgailua martxan zela sartu da	 Pantaila	Bistaratu
 Errorea txartelaren azkeneko saioa ixtean	 Deskarga	Transferitu
 Gehiegizko abiadura	 Elikatze-iturria	
Argindarraren etenaldia	Inprimagailua/inprimatutako agiria	Inprimatu
Errorea mugimendu-datuetaen	Kaptadorea	
Segurtasun arazoa	Pneumatikoen neurria	
Ordua jarri (saiakuntza-zentroak)	Ibilgailua/ibilgailu barruko unitatea	
Gehiegizko abiaduraren kontrola		

INPRIMATUTAKO AGIRIEN INTERPRETAZIOA

Hona hemen 24h agiri bat. Bertan 24 orduko egun oso batean txartelean erregistratutako datu guztiak ageri dira, gertatutako ordenean.



Inprimatutako agirietan hiru atal bereiz daitezke: idazpurua, gorputza eta oina.

Idazpurua. Agiriaren sarrera. Atal horretan azaltzen den informazioa oso antzekoa da agiri guztietai.

Gorputza. Inprimatzeko eskatu duzun informazio berezia hor azalduko da. Gogoratu 6 agiri mota desberdin inprimatzeko aukera ematen dizula, eta eskatutako informazioa atal horretan agertuko dela.

Oina. Agiriaren amaiera. Oso antzekoa da 6 agiri motetan.

NOLA DESKARGATU ETA GORDE DATUAK

Nola gorde informazioa

Ibilgailuaren eta gidarien mugimenduei buruzko informazioa bi lekutan gordetzen da:

- **Takografoaren memorian**, ibilgailuaren mugimenduari buruzko datu guztiak jasotzen ditu.
- **Gidariaren txartelean**, txartel horrekin, ibilgailu batean nahiz hainbatetan, egin diren mugimenduei buruzko datuak.

Nola deskargatu informazioa

Informazioa deskargatu esaten dugunean, takografoan edo gidariaren txartelean erregistratutako informazioa kanpoko beste elementu batean **kopiatzea** esan nahi dugu. Informazioa kopiatu egiten da, baina jatorrizkoa ez da ezabatzen. Takografoan edo txartelean jasotako informazioa hor egongo da, harik eta memoria agortu arte. Takografoaren edo txartelaren memoria agortutakoan, sartzen dugun informazio berria zaharraren gainean gordeko da, eta informazio zaharra, beraz, galdu egingo da:



Memoriaren edukiera minimoa, 365 egun
Gutxienez 3 hilabetetik behin



Memoriaren edukiera minimoa, 31 egun
Gutxienez 31 egunetik behin



Deskargatutako datuak gutxienez erregistratu ziren egunetik beste urtebeteen gorde beharko dira.

Saiatu epea bukatu baino lehen deskargatzeten, gerta liteke-eta, mugimenduen arabera memoria 31 egun igaro baino lehen betetzea.

Eguzu deskargatutako datuen segurtasuneko kopia bat.

Deskargatutako datuen formatua

Gidariaren txarteletik eta takografotik deskargatutako datuak .TGD lutzapena duten fitxategi gisa agertzen dira. Fitxategi horien izenaren formatua aldatu egiten da datuen jatorriaren arabera, hau da takografotik deskargatutako datuen fitxategiaren izenak formatua bat dauka, eta gidariarenak beste bat:

- **Takografotik deskargatutako datuak.** Izena honela osatuko da: V, ibilgailuaren matrikula, estatua, deskarga-eguna (urtea/hilabetea/eguna) eta deskarga-ordua (ordua/minituak), datu bakoitza gidoi baxu batekin berezita:

V_0001ABC_E_20060404_0000.TGD

- **Txarteletik deskargatutako datuak.** Izena honela osatuko da: C, Titularren txartelaren zenbakia, estatua, deskarga-eguna (urtea/hilabetea/eguna) eta deskarga-ordua (ordua/minituak), datu bakoitza gidoi baxu batekin berezita:

C_E000000000000000_E_20060303_0000.TGD

Administrazioak epe jakin bateko datuak eskatuz gero, datu horiek zein fitxategitan dituzun bilatu eta kopia bat bidali beharko duzu, CD-R edo CD-RW batean edo posta elektronikoz.

DATUAK DESKARGATU ETA KUDEATZEKO TRESNAK

Datuak deskargatzeko tresnak

Siemens VDOk tresna hauek eskaintzen ditu datuak deskargatzeko:

- **Download key edo deskargatzeko giltza:** takografoan nahiz txartelean jasotako informazioa deskargatzeko balio du.
Programazioko software erraz bat dauka, eta beraiz, deskargatu nahi duzun informazio motaren arabera konfiguratu egin beharko duzu.



Ez da komeni datuak gordetzeko tresna bakar bat erabiltzea, tresna hori galdu edo hondatuz gero, daturik gabe ez geratzeko.

- **Txartel-irakurgailua:** gidariaren txartelean gordetako datuak, takografoa erabili beharrik gabe, zuzenean ordenagailura deskargatzeko balio du.

Nola deskargatu takografoko datuak

- Eragin ibilgailuaren giltzari, baina arrankatu gabe.
- Sartu enpresa-txartela 1. edo 2. artekan.
- Sartu deskargatzeko giltzaren ziria takografoan dagokion zuloan, eta datuak deskargatzen hasiko dira.
- Deskarga ondo egin bada, eskubiko argi berdea piztuko da, eta gaizki atera bada, gorria.

Gidariaren txarteleko datuak deskargatzeko

Downloadkey-arekin:

- Eragin ibilgailuaren giltzari, baina arrankatu gabe.
- Sartu gidariaren txartela 1. artekan, eta enpresarena 2.ean.
- Sartu deskargatzeko giltzaren ziria takografoan dagokion zuloan, eta datuak deskargatzen hasiko dira.

Txartel-irakurgailuarekin:

- Konektatu txartel-irakurgailua ordenagailuarekin.
- Sartu gidariaren txartela irakurgailuan, eta datuak deskargatzen hasiko da.

Deskargatutako datuen interpretazioa eta kudeaketa

Deskargatutako datuak fitxategi batzuetan gorde dira, baina ezin dira besterik gabe bistaratu. Horretarako datuak interpretatu eta kudeatzeko programa bat behar duzu. Siemensek TIS-Office, TIS-Web edo SArCu dauzka horretarako.



Datuak deskargatu eta kudeatzeko marka desberdinek dituzten tresnak elkarrekin bateragarriak dira; hau da, posible da Siemens takografo bateko informazioa deskargatu, bistaratu eta prozesatzeko beste marka bateko tresnak erabiltzea, eta alderantziz ere, berdin-berdin.